



KOSTU EGITURA

Festibal zeharreko kostuak

KOSTU FINKOAK	PREZIOA
LANGILEEN SOLDATAK	180.000€ (500perts. x 8h x 15€ x 3eg.)
KOSTU ALDAKORRAK	PREZIOA
KARRITOAK	150.000€ (500kar. x 100€ x 3eg.)
KOSTUAK GUZTIRA	330.000€

Urte osoan zeharreko kostuak

KOSTU FINKOAK	PREZIOA
ALOKAIRUA	800€
KOSTU ALDAKORRAK	PREZIOA
ELEKTRIZITATEA	39€
URA	40€
KARTELAK INPRIMITU	401€ (2kart.mot. x 50kop.)
HASIERAKO INBERTSIOA	PREZIOA
MAHAI HANDIA	315€
AULKIAK	300€ (100€ x 3aulk.)
TELEFONOA	40€
KOSTUAK GUZTIRA	1.935€

Gure proiektuaren helburua Aladina elkartearentzako ahalik eta irabazi ekonomiko gehien lortzea da, eta Festy Drivers enpresak izango dituen kostuak bi multzotan banatzen dira.



Alde batetik, enpresak izango dituen **kostu finkoak**. Hau da, hilabetero ordaindu beharreko alokairua (800€) eta langileei ordaindu beharreko soldata. 500 langile izango ditugunez, eta 8 ordu egingo dituztenez lan, eta ordua 15€ ordainduko diegunez, eta gainera, fetibalak hiru egun irauten duenez, gastu hau 180.000€-koa dugu.

Bestetik, enpresak izango dituen **kostu aldakorak**. Hala nola, gure enpresan ezinbestekoak ditugun karritoak alokatzea. Hauek Belgikako enpresa batetik alokatzen ditugu, alokairu karrito batengatik 100€-koa denez, eta guk 500 karrito behar ditugunez eta festibalak 3 egun irauten dituenek, kostua 150.000€-koa da. Horrez gain, kostu hauen barruan, elektrizitatea eta ura sartzen dira, hiru hilean behin ordaindu beharrekoak, eta azkenik, gure zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak ditugun kartelak inprimatzea.

Azkenik, **hasierako inbertsioko kostuak**. Kostu mota hau bi zatitan banatua izango dugu, alde batetik gure bulegorako beharrezkoak izango diren altzarietarako kostuak, eta bestalde ofizinarako mugikorra erosteko beharko ditugunak. Bulegoko gastuen barnean; bulegorako mahaia (315€) eta hiru aulki (300€) egongo dira. Eta azkenik mugikorrerako hileroko 40€-ko gastuak izango ditugu. Aipatzekoa da, ordenagailuak ez direla kostu bat izango guretzat, aurrez etxean ditugun ordenagailuak erabiliko ditugulako.